

FITXA: 256 - GIPUZKOA - Garapen jasangarrira bideratutako lurralde partekatu gisa mugaz gaindiko komunitatea (Gipuzkoa-Pirinio Atlantikoak) sustatzeko Ideiak programako dirulaguntzen 2026ko deialdia.

Nori zuzendua: Entitate onuradunak izango dira Gipuzkoan kokatutako hauek: elkarte, fundazio, enpresa, ikastetxe, unibertsitate, udal, mankomunitate edo bestelako erakunde publiko edo pribatuak.

Deialdia: GAO - Gipuzkoako Aldizkari **Deialdiaren data:** 2026/07/17
Ofiziala

Sarbide-esteka:

<https://egoitza.gipuzkoa.eus>

Erreferentziazko araudia: Akordioa, 2026ko ekainaren 30ekoa -
<https://egoitza.gipuzkoa.eus/gao-bog/castell/bog/2026/07/17/c2604605.pdf>

Eragin eremuak: Nazioarteko lankidetzak

Zenbatekoa: 150.000,00 €

Aurkezteko lehen eguna: 2026/07/18

Aurkezteko azken eguna: 2026/09/17

Aurrerakina: Ez da zehaztu

Aurrerakinaren gehieneko %a: Ez da zehaztu

Gehieneko zenbatekoa: 18.000,00 €

Gutxieneko zenbatekoa: 200,00 €

Tramitazioa: Norgehiagoka.

Laburpena

Diruz lagundu daitezkeen jarduerak bi lurraldeetako (Gipuzkoa eta Pirinio Atlantikoak) erakundeen arteko lankidetzak-proiektuen garapena izango dira, gizarte-, ekonomia- eta ingurumen-eremuetan mugaz gaindiko harremanak sustatu eta sendotzeko (hala nola: garapen jasangarria, kultura, tokiko ekonomia, kirola, gazteria, ikaskuntza, ekintzailatza, eleaniztasuna, euskara, ekologia, berrikuntza, energia, ongizatea, berdintasuna, aniztasuna eta gizarteratzea, besteak beste).

Diruz lagundu daitezkeen jarduerak

Proiektuak, Pirinio Atlantikoetako lurraldeko entitate batekin elkarlanean garatu beharko dira.

Proiektuak zuzenduta egongo dira:

- Nortasun partekatuak sortzea (narratiboak, kultura-elementuak, kanpainak...).
- Pertsonen eta/edo erakundeen artean lotura egonkorrak sortzea (trukeak, topaketak, lantaldeak, baterako sorkuntzako jarduerak, ikaskuntzakoak, komunitarioak, parte-hartze sozialekoak...).
- Sareak ezartzea, artikulatzea edo sendotzea.
- Esperientziak trukatzeta.
- Ezagutzaren eta elkarlaneko ikaskuntzaren kudeaketa.
- Bizitza osoan zeharreko ikaskuntza sustatzea.
- Gizartean eragina duten eta lurraldean sustraituta dauden ekimen kolektiboak garatzea.
- Garapenerako eta lankidetzarako aukerak identifikatzea.
- Proiektu esperimentalen inplementazioa.
- Berrikuntza irekiko eta/edo lankidetzako prozesuak aktibatzea eta sendotzea.
- Berrikuntza publikoko, sozialeko eta/edo lurraldeko soluzioak diseinatzea, abian jartzea eta hedatzea.
- Harremanak eta lankidetzaz erraztea.
- Mugaz gaindiko lankidetzarako oztopoak kentzea

Jarduera-ildoak

Ez da zehaztu

Diruz lagundu daitezkeen kontzeptuak

Diruz lagungarriak izango dira entitate eskatzaileak aurkezten duen aurrekontu banakatu eta xehatuan jasotako kostuak, jardueraren garapenari zalantzarik gabe lotuta daudenean eta behar-beharrezkoak direnean.

Gastuetarako aldi hautagarria

Dirulaguntzaren xede diren jarduerak, urte naturalaren barruan hasi beharko dira, 2026ko urtarrilaren 1etik aurrera, eta 2027ko urriaren 15erako amaitu beharko dira.